

**Goibek** kale

Elgetako aldizkaria azaroa 40zk.

**hainbat oztopo  
dira gainditu  
beharrekoak**

*Maderas Gallastegi, s. a.*

**MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA**

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxe: 94 6583061.

**Egingo dugu**

Tantaka tantaka egiten ari gara.

EGIN itxi zutenean uste izango zuten Herri honen ahots kritikoa ixilduko zuteala betirako. Baina, oso denbora gutxian gai izan gara erakusteko, herri honetan zein kaskagorrrak garen, eta Espainiako agintariak zein erraturik zebiltzan.

Gainera, egiten ari garen proiektu informatibo berriak lehengo hobetuko du. Egunkariarekin hasi eta beste aukera komunikatibo batzuetara zabaltzeko aukerak izango ditu: irratia, telebista etab. sortuko den komunikabide berria auzolanean eraikitako proiektua izango da. Herritik sortutakoa, langile, ikasle, dendari, tabernari eta herritar soilak emandako tantekin. Tanta horiekin ibaia haunditzen joan da, eta laister itxaropenezko itsaso horrek Euskal Herriko bazter guztiak, askatasunez beteriko hitzez bustiko ditu.

Komunikabide hau ez da kapital talde haundien menpe egongo, ta iritzi ezberdin guztiei zabalik egongo da, gizarteko borroka ezberdinen ahotsak tokia izango dutelarik bertan.

Bere burua abertzaletzat duen askok gogoeta egin beharko luke bere bizitzan zein komunikabidetatik hartzen duen eguneroko informazioa. Ezin da ulertu Gipuzkoa bezelako herrialde batean gehiengo abertzale nabaria izan eta DIARIO VASCO, egunkari espainolista, gehien saltzen dena izatea. Alderdi, sindikatu eta talde sozial abertzaleek badute lana egoera honi buelta emateko, eta Euskal Herri aske baten alde dauden komunikabideak bultzatzeko.

Sebas Arantzabal

AENOR


**ER**

Empresa Registrada

ER-7142/96

*Estampaciones* **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxes: 76 82 61



## Ikasle bizitza

**B**etiko leloa da: ile kizkurrea duenak lisoa ukan nahi luke, lisoa duenak homogeneousia deritzo bereari. Hiritarrak mendiko lasaitasuna faltan, eta mendikoak zaraten

konpainia amesten du. Lanean ari direnek ikasle garaia dute gogoan, eta ikasle direnek langile (soldatadun) izan nahi lukete.

Ikasle bizitza ez da erreza: Batetik dirua; (dirurik ezaz, noski); bestetik, kezka etengabea.

Bigarrenarekin hasiko naiz. Egia da ikasle on lana ez dela eskola orduetan amaitzen. Haratago joanda, ikasle baten lana inoiz ez dela amaitzen esan genezake, baseritarrarena bezalaxe. Etengabeko kezka da; astebarru zein asteburu, lan-aste zein opor garaian beti buruan dabilkigun kezka: "gingo nuke halako, baina ikasi beharra ere badaukat...", "joango nintzateke, baina bukatuko al dut astelehenerako lana?"

Eta dirua. Ai, dirua! Denbora libre pixka bat (hartzen) dugunean ere, zenbat amets gelditu ote dira bertan behera, dirurik eza zela-eta. Egia da, diruak askatasuna ematen du, baina menpeko tasuna sortu ere bai, eh! Esango nuke lanean ari den jendea diruarekiko menpekoago dagoela.

Baina ikasleok ere baditugu geure abantailak. Agian garrantzitsuena, norberaren garapanari dagokionez, beti jasotzen ari garearena da. Edo ematen diguten bibliografiaren laurdenaren laurdena irakurriz gero, uste baino gauza interesgarri gehiago aurki genezake. Eta zer esanik ez jasotako informazio hori guztia erabilgarria dela deskubritzen dugunean hartzen dugun pozari buruz.

Nahitaez egon behar dugu ikasleok aktibo, jakinminez, ikasi gosez. Ikasteko zenbat gauza dagoen egunero ikustarazten digute, eta etengabeko ahalegin hori, uneoroko galdera horiek pertsonak izan ditzakeen altxorrik preziatuena dira. Egia den arren preziatuagoak izango liratekeela hain presionatuak ez balira, baina tira. Oraindik azterketak urrun dauzkagunez, posible zaigu honelako artikulu optimistak idaztea.

Ainhoa Agirreazaldegia



## Kastellano batuaz oraindik

**G**abonak gainean dira. Gutxi-gehiago loteria txartelak bueltan ibiliko ditugu. (Batzuek Espainiako gobernuari diru gehiago ez emotearren erosi ere ez, baina

gehienok ikusiko dugu bakarren bat edo beste). Erreparatu al diozue zein hizkuntzatan dauden idatzita? Ziur, ehuneko askoz handiagoa dutela erdara-euskarak, biak, erabiltzen dituztenak, eta oraindik askoz gehiago "kastellano batuan" emanak. Egunotako bitxikeria bat besterik ez da hau.

Erderaz jasotaji elkarrizketetan ohartu al zarete nola ematen dituzten EITB-n? Pertsoniak berak esandakoa erdaraz entzuten hasten gara eta geroxeago, OFF-eko esatari batek euskarazko itzulpena ematen digu. Ondo egina: Bikoizketaren legeek ere halaxe agintzen dute.

Baina konturatu al zarete zer gertatzen zaion euskaldun petoenari ere, adibidez, ETB2an? Ba bere jakituria eta maila altua azaltzeko, "kastellano batuaz" hitz egiten du.

Euskal Telebista eta irratiak piztu, eta erdarazko munduarekin egiten topo dugu saio askotan. Lehiaketa "inuzenteenean" jartzen dituzten galderak ere lotsagarriak dira... "Zein da Erregearen ilobaren izena?" "Zeinekin izan zuen haurra Ana Obregonek?"

Hona nire ikuspuntua: Euskal herriko euskalduna naiz eta euskaraz bizi naiz egunero, eta holaxe nahi dut gainera. Zein da Erregea? Euskal Herrian erregerik ba al da? Ni konforme nago mundu osoko batallitak estudiatzeko, baina zeinek azaldu behar die gure umeei, Gerra garaian izandako Elgetako bataila odoltsuaren berri? Eta neska marifreska hori, zein da? Nik nahiago nuen, txikitan herriko eskolan Bizenta Mogel zein izan zen eta ze lan egin zuen ikasi banu.

Zoritxarrez, aipatutako hau ez da komunikabideen gaitza soilik. Oso barneratua daukagu denok eta nahi gabe irteten digu kultura "kastellano batuak".

Beatriz Zabalondo

**kutxa** fundazioa  
fundación



Eusko Jaurlaritzako hura sailak diruztako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

## GOIBEKOKALE

**Argitaratzailea:** Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690.  
**Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar.  
**Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza.  
**Publizistak:** Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).  
**Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.  
**E-mail:** goibeko@topagunea.jalgi.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# Frontoia beteta proiektu berriaren alde




Azaroak 28an Elgetan EGIN genuen. Frontoian zegoen hotza berehala berotu zuten bertaratu ziren 300 lagunek.

Elgetan 1.300.000pta atera behar ziren proiektu berri-rako, herritarrek erositako akzioekin eta jaialdiarekin diru guztia batu zen. Jaialdianherri guztiak hartu zuen parte.

Herri kirolak, Ozkarbi abesbatza, Izaskun, Nola Bestela?, Play Backa eta azkenik desfilea, Elgetan lehenengo aldiz egin dena.

Gauean ere jende ugari kontzertuan.



# Txakurrek sortzen dituzten arazoak konpontzeko saiakeran

## Udaletxeak jasotako kexen ondorioz arautua

Ugaritzen ari dira herriko kale eta espaloietan txakur gorotzak. Txakurrak ere ugari dira eta, 79 daude zentsatuak. Hau ekiditzeko Udaletxeak arau batzu jakinerazi dizkigu.

Txakurrarenganako tratu txarrak, bazter uztea, edota txakur burrukak gertatzea debekatuegin dira. Txakurraren jabea izango da honek sorturiko kalte, hondamen eta enbarazoen erantzule.

Udaletxetik garrantzia eman zaion araua, txakur gorotze-na da. Txakurraren jabeak neurri

egokiak hartu beharko dituelarik leku publiko nahiz pribatueta geroztik ez agertzeko.

Bestald, txakurrak 3 hila-bete dituenetik mikro txiparekin identifikatua egotea derrigorrezkoa da. Identifikatu gabe dauden txakurrei gutxienez 5.000 pta-ko zigorra ezarriko zaie. Txakurra galtzean salaketa egin behar dela ere gogoratzen digute arauak.

Arau hauekin txakurrek sortzen dituzten arazoak eta txakur gorotzak bistatik kenduko direla uste du Udaletxeak.

## Gabonetako ekintzak prestatuta

### Hile bukaerarako kultura batzordeak ekintza ugari antolatu ditu gabonak direla eta

Gabonen etorrera ospatzeko kultura batzordeak ekintza ugari antolatu ditu aurten ere.

Abenduak 19an Umeen-dako Festa izango da. Arratsaldeko 17:00etan Ipuin lehiaketan parte hartu duten guztientzat merienda egongo da Ozkarbi elkarteetan. Arratsaldeko 18:00etan Christama erakusketa zabalduko da. Ondoren Gaztetxean dantza saioa egongo da haur guztientzat. Arratsaldeko 19:30etatik aurrera gaztetxentzako musika jarriko da.

#### Olentzeroren etorrera

Abenduaren 23an Olentzerok bisi-

ta egingo digu herrira. Arratsaldeko 18:00ak aldera herriko neska-mutilen gutunak jasotzera etorriko da plazara.

Abenduak 24an, goizeko 11:00etan eskoletako umeak eta gurasoak abestera irtengo dira. Arratsaldean Jaiotza Bizia egingo da, ordua eta lekua erabaki gabe dauden arren seguraski elizan izango da.

Kultura batzordeak herriko gurasoei deia egin nahi die Gabon kanta abestera eta Jaiotza Bizira umeekin baserritar jantzita etor daitezen.

#### Euskara ikastaroa martxan.

Azaroaren hasieratik martxan dago euskara ikastaroa. Ikastaro honek ekainaren bukaerarainoko luzera izango du. Momentuz sei ikasle eman dute izena. Ikasle hauei AEKk emango dizkie eskolak. Eskolak martitzenetan, eguazteneztan eta eguenetan izaten dira, arratsaldeko 14:00etatik 16:00etara.

Ikastaroaren matrikula 32.000pta.takoa da. Matrikulatzeko aukera badago oraindik.

#### Guraso elkartearen aldaketak

Eskolako erabakiak hartzen diren Organo gorenean guraso eta irakasleek hartzen dute parte. Guraso elkartearen ordezkariak aldatu behar zirela eta, Miren Amaia Osoro, Santi Doruna eta Izaskun Larrea izango dira aurrekoen ordezkariak. Ordezkari berria berriz Eguzkiñe

Gallastegui izango da Gurasoen organo goren honetan lortu nahi dituzten puntuak jolastokiarekin lotuak daude. Alde batetik, barruko jolastoki bat nahi dute; Bestaldetik, irekia akon-dizionatu beharra dagoela uste dute.

#### "Mitch" en eraginak konpontzen

Gipuzkoako Caritas-ek "Mitch" ek eragindako kalteak konpontzeko diru bilketa kanpaina hasi du. Hai- zerauntsiaren ondorioz Ertameri- kan 40.000 pertsona inguruk bizia galdu dute. Desagertuak asko dira eta etxebizitza gabe geratu direnak miloika. Elgetako Udaletxeak 100.000pta eman ditu lagundu nahian. Caritas-ek ere elikadura eta osasun premiei aurre egiteko, diru bilketa kanpaina hasi du. Dirulaguntza bi banketxetako zenbaki hauetara bideratu daiteke:

KUTXA: 6269/5  
LANKIDE AURREZKIA: 9900.0



Leku paregabea, eguneko menua

Astehenetik ostiralera zabalik goizeko 9:00etatik



Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA

Eguneko menua 800 pzt. Karta.

## Kontrola!!!

Euskal rockaren hasierako kantu famatuak kantatzen zigun egoera ahaztu xamar bageneukan ere gure Euskal Herri honetan ahazten lagatzen ez dutenak jarraitzen dute oraindik lanean eta, aukeratzekoan, halako "praktikak" egiteko zer hobeto Europa mailako trafikoa daukan GI-3360 bidea, denok ulertzeko Bergara-Angiozar-Elgeta bidea.

Hori gertatu zitzairen Angiozarko gazte kuadrilari Errealaren partidua ikustetik datozela, irabazi zuela eta nor baino nor poziago, Kontrolean gelditu zituztenean. Ez zegoen alkoholemia frogarik, ezta trafiko araurik hautsita, ... bakarrik gazteak ziran, Angiozarrera zetozen eta hori nahikua zen.

Kontrola politikoa zen, garai batean bezala jendea kontrolatzeko eta izutzeko balio zutenetarikoa, bestela nola ulertu Guardia Zibilen galderak "egin"en aldeko bonoei buruz, Angiozarko Alkatearen joera politikoari buruz, ... bultzakada eta guzti. Eta bitartean edozein hiritarri, gaztea zein helduari, dagokion errespetoari edukitako desprezioa onartezina da.

Halako egoerek zalantzan jartzen dute hainbat aldiz aldarrikatu den "demokrazia" indarrean dagoenik, nahiz eta datorren astean "Santa Constitución"ek hogeitau urte bete behar dituen, justu kontrolean geratu zituzten gazteek adina. Ezin ukatu sinbolikoa denik!

## Angiozarko Eskolakoek Bilbon Aktuatu dute

Datorren abenduaren 16an Bilboko Erakustazokan antolatzen den "Txikientzako Parkea-Parque Infantil"en barruan Angiozarko Herri Eskolako haurrek "Iontxu Zoriontsu" antzezlan emango dute. Goizeko hamaiak aldera izango da antzerkia.

Haurrek zein gurasoek eta nahi dutenek osatutako taldea joango da bertara egun pasa eta orain arte aktore eta aktorea gaztetxo hauek erakutzi duten lan bikaina txalo-tzera.

Egun horretan zer egin ez dakienak badaki nora joan.

## Frontoiko lanak nork bukatuko dituen jakin da.

Construcciones Suquía izango da azkenik Angiozarko Frontoiko lanak egingo dituen enpresa. Bergarako Udaleko Hirigintza batzordeak ahobatez onartu zuen Suquiaren eskeintza zeinek hiru hilabete eta hiru astetan, 113 egun, bukatu beharko dituen lanok. Lanok edukiko duten kostua 59 miloi pesetakoa izango da.

Obra honek dakarren atzerapena dela eta ez dira hasiera baten pentsatu ziren bi epeak beteko, dena lanaldi baten egingo da: hormak berritzu, teilatua ipini, gradak egin eta biltegia eta aldalekuentzat etxea egin.

Hirigintza Batzordeak lan guzti hauek egiteko Construcciones Suquía eskeini duen

azkartasuna baloratu du gehien bat, presentatu diren beste enpresek lau hilabetetik zazpi hilabeteraino eskaintzen bait zuten.

Lanok egiteko aurreko aldiaren aurkeztutako aurrekontu merkeena izan zen onartua eta lana beste enpresa bati subkontratatu egin zen, ezin izan zutelarik konpromezua

bete. Orain egindako lanak baloratuko dira eta hasierako aurrekontutik kendu.

Espero dezagun oztopotrik ez edukitzea oraingo aldiaren eta, esaten dutenez, lanak lehen bait lehen astekoak badira, Elizamendiko Ama Birjinaren jaietarako frontoia inauguratzeko moduan egotea.

Taberna Zaharra  
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar



ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAK ETA  
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta

P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)

Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203



Karta asko jaso dittugu oinguan. Ermittako kanpaia dala, kanpantorreko kanpaia... kartak asko, baiña erantzun zuzenik ez. Bi galdera eua-zen erantzuteko: bata, zer zan; bestia, zein auzunatan dagon kanpaia. Zer zan asmatzen nahikua ondo ibilli da jentia, baiña auzunia iñok ez dosku esan zein dan.

Bertako auzunakuak be ez ete dabe ba jakingo? Beste intento-  
txo bat egittera goiaz. Gaiñera, afarixakin batera kamisetia be erregalau bihar dogu.

Pistatxo bat be emotera goiaz holako zailla izan ez daixen. Kanpaia badago oindiokan eta aurtengo udan joten entzun giñuan oporretara fan ez giñanok. Nun dago?

**Goibekokaleko kamisetia nahi dozula? birentzako afarixa jatia nahi dozula?**

Idatzi Goibekokalera.

**Goibekokale,  
Salbador kalia 2,  
Kultur etxia**






*Nerea Larrea  
Etebeandria (33 urte)*

Ez, beste herri batzukin konparau ezker ez. Biharbada izan leike oiñ arte ez dalako holako kasurik egon, baiña, hala ta be, hobeto egon bihar litzake. Bakarrik ranpa bat dago plazitik bajatzeko ta ez dot uste nahikua danik, holako gauza gehixau egotia biharrezkua ikusten dot.

Ez dot uste herrixa preparauta dagonik horrek pertsonondako. Herrixan dagozen ranpak umien kotxiendako ta andren karruandako egiñda dagoz. Zorionez ez dago hor situaziñuan dagon pertsona asko ta gutxiau egongo balitzaz hoba, baiña dagozenei erreztasunak emon biharko jakuen.

*Francisco Llamas  
Etxebarria (48 urte)*



*Mikel Eskoro  
Etxebarria (33 urte)*

Ez bihar litzaken beste. Inguruko herrixetan ikusten dira gauzak eurei bizimodua errezteko, azerara igotzeko ranpak, kumun publikuetan, autobusetan... Elgetan ez dot uste erreztasunik emoten jakuenik.



*M<sup>a</sup> Egoia Bengoitakengoa  
Etebeandria (66 urte)*

Erroberadun aukixetan dagozenak ta derri gorrez bihar dittue erreztasunak, bai etxian ta baitta kalian be. Uste dot herrixan ipini biharko litzakezela gauzak eurei bizimodua errezteko.

Ez dot uste erreztasunik emoten jakuenik hemen situaziñuan dagonzenei. Erreztasun gehixau emon biharko jakuen, ranpak eta ipinitta. Holako gauzek ez dotze iñoi kalteik egitten.

*Jesús González  
Etxebarria (48 urte)*



Ez, bapez. Etxian dakau arazo hori ta ikusten dogu ez dagola iñungo erreztasunik kalian ibiltzeko. Uste dot oiñ momentuan dagon bitzta mailliakin hor gaixan herrixa ez dagola bape aurreratuta.

*Ana M<sup>a</sup> Roquela  
Etebeandria (48 urte)*



Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina

**IAPAM**

Soldadura homologatuak

Hoditeria Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA  
Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14

**EROSLE**

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

**Iragarri zaitez.**

Tel: 78.90.85

Faxa: 789043

**IBAIBARRIAGA**

GARRAIOAK

Tel: 768072

Salbador zeharbidea 2

ELGETA

7  
L  
E  
A  
P  
A  
7  
N  
D  
E  
S  
7  
A

M<sup>a</sup>  
**ESTHER**

Tel: 76 81 67



**Aries:** Konturatu hadi hurrengorako zelako barria dakaken/dakanan ze atzeraka emoten jok/jon begiratziak bakarrik. Egiñik/egiñin zeoze!!!  
.....

**Taurus:** Lagaixok/lagaixon behingoz burugogorra izatiai. ezin dok/don beti heuk nahi duana/donana egiñ. Bestiak be kontutan eukitzeak dittuk/dittun.  
.....

**Gemini:** Zubixa datorrela ta hasi haiz ligatzeko teknikak errepasatzen! Hobe dok/don lasai-lasai hartu ta denporiak esango jok/jon.  
.....

**Cancer:** Astian zihar ez haiz oso santu egon ta hobe izango dok/don poltsa beruakin ohian sartzia. Bestela, ez haiz sekula mejorauko.  
.....

**Leo:** Gorputza gero ta gogorragua dakak/dakan, dantza saio batzuk botatzia ondo etorriko jata/jatan biguntzeko. Ah!! Baiña, ez hadi lotsatu, ta  
.....

**Virgo:** Maitasunez erdiska, diruz eskas ta katarrua harrapatzeko puntu-puntuan, hori dok/don panoramia!! Etorriko dittuk/dittun sasoi hobiak.  
.....

**Libra:** Hire jokaerak ikusitta bakarrik esan leike ez zala ziero sanua, baiña egiñ daben hegoaixiak ez dok/don harritzekua.  
.....

**Scorpius:** Pentsatzen dozuna ez da bihandan moduan adierazten, horregaittik sarritan ez jatzu ezer ulertzen. Soltura gehixaukin berba egiñ biharra dakazu.  
.....

**Sagitarius:** Gabonak gertuan darella ta armaixuak janariz betetzen? Ondo egitten dok/don merkealdixak aprobetxau biharra jaok/jaon.  
.....

**Capricornius:** Hire sifitzako momentuan izarren ta illargixan eragiña sentiduko dok/don. Onerako ala txarreako dan heuk ikusiko dok/don.  
.....

**Aquarius:** Etxeko lanak egitten ez dakixula!! Horrek aitzaxiak besteik ez dira. Saiatu ezkerre danok egiñ geinke edozer gauza.  
.....

**Piscis:** Leo sifuko batenbat inguratu jata/jatan, baiña ez bialdu beti egitten doken/donan moduan. Jokaera hori aldatzeko ordua dok.  
.....

## M<sup>a</sup> Angeles Gerediaga Bihargiña (52 urte)

- Zenbat urtian zabiz umiak zaintzen? 17 urte.

- Zeintzuk izan zian lehenen-guak? Oxel ta Koldo. - Ta azkenak? Miren eta Amaia, momentuz behintzat.

- Ze diferentzia dago norberan umiak zaintzia eta iñonak zaintzian artian? Beste batzuk zaintzian erresponsabilitate handixaua euki bihar dozu.

- Kafesnia ala ebakixa nahixau? Ebakixa.

- Seme alabek emon dotzuen disgustoik handixena? Kasoik ez egittia.

- Nora faten ziñan gaztetan juergara? Durangora.

- Beste ume bat euki bihar baziñu, zer nahiko ziñuke semia ala alabia? Berdin berdina dosta.

- Jaiak 98kuak juan jatzuzenian zenbat metro egiñ ziñuzen korrika? Bost bat metro bai.

- Umiak edukatzeko orduan zein papela da garrantzitsuena: gurasuena, andereñuana ala zaintzailiana? Gurasuena.

- Aldizkaririk gustokuena? Pronto.

- Gizonak egiñ dotzun erregaloik erromantikuena? Eratzuna.

- Zure gorputzeko atalik politena? Orokorrian dana.

- Iñoiz biharko baziñu "Viagra" erabiltzian aldekuia izango ziñake? Ez nahi holako gauzak erabiltzian aldekuia.

- Zer egiñ bihar da umia negarrez dagonian ixiltzeko? Berba egiñ ta trunkildu.

- Zeintzuk dia jatorrauak, bizkaitarrak ala naparrak? Bizkaitarrak.

- Agarraua ala dantza sueltua nahixau? Dantza sueltua.

- Zelan ikusten dozu zure burua Euruakin erosketak egitten? Oso gaizki.

- Porru-pataak ala porruak nahixau? Porru-pataak.  
- Lagunartian berba egitteko gairik gustokuena? Politikia ez dan edozer.  
- Zenbat urte ez konduta? 27 urte.



Berezitasuna:  
Buztana.  
Pintxo gozoak  
otartekoak.

**BOLATOKI**  
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

**Goio Sarasua**

Igeltzeritza lanak

Teilatuak                      Sukaldeak  
Etxaurreak                      Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

# Oztopoz oztopo traba urbanistikoak gainditzen

Ezintasun fisikoa duten pertsonak behin eta berriz egin behar diote aurre gizarteak jarritako oztopoei

XXI. mendearen atarian, gizabanakoaren biziraupena are eta handiagoa denean, ezinbestez, ezintasun fisiko ezberdinak dituzten pertsonak gehituz doaz. Egoera honek gizartean islada izan beharko luke, baina ez da horrelakorik gertatzen. Eguneroko bizitzan hainbat oztopo dira gainditu beharrekoak. Agintarien betebeharra, eta gizartearena orohar, ahalik eta erraztasun gehien ematea da bizi maila hobetu eta baztertuak senti ez daitezen.

"Bizitza sozialean eta komunitarioan sartzea eta parte hartzea, bidezko den helburua ez ezik, pertsona orok edozein gizarte aurreratutan duen nahia ere bada...". Hitz hauekin ematen zaio hasiera 1997ko abendu-



*Ibilgailu bereziak erostean ez dute zerga bereziak ordaindu beharrik.*

ren 4an Eusko Legebiltzarra onartu zuen legeari. Argi dago nahia norberak izan behar duela, baina gogoia izan arren, gizarteak erraztasunik ematen

ez badu, zaila da integrazioa lortzea. Karmele Elgetako gizarte laguntzaileak lege honen ideia garrantzitsuena hitz gutxitan laburbiltzen digu

"Lege hau irisgarritasun arazoak dituztenei zuzendua dago. Moldaketak poliki-poliki egin behar direla esaten du: eraikuntza publiko berrietan ezintasuna dutenentzako baliabideak ipini, hala nola, ranpak, komun bereziak, aparkalekuak... eta eraikuntza zaharretan ere piskanaka-piskanaka moldaketa hauek aurrera eramane behar dira, inor behartu gabe. Dena den,

***"Herritarrek, bai talderen batek edo baita partikularren batek, eguneroko bizitzan barrera arkitektonikoak izanez gero Udala prest dago oztopo horiek kentzen joateko" dio Karmelek***

**F . O**

**Kalitate kontrola**

**Piezei azken ukituak**

Tel: 76 80 38

salbado  
19  
behea

**VIV**

Tel: 76 81 31

M<sup>a</sup> Jesus Arrazola

Janari

denda

**E**

**HARATEGIA**

**AST**

San Roke 6  
tel: 768168.

eraikuntza berrietara zuzendua dago lege hau batez ere.

### Udaletxea eta herritatak

Karmeleren esanetan Elgetako Udalak ez ditu alde batera utzi arazo hau bizi dutenak " Herritarrek, bai talderen batek edo baita partikularren batek, eguneroko bizitzan traba urbanistikoak izanez gero Udala prest dago oztopo horiek kentzen joateko". Laguntza hau ordea ez da publikoak diren eraikuntzetara murrizten, " Etxebizitza partikularretan egin beharreko obratarako ere dirulaguntzak ematen dira. Egin beharreko obra horren arazoia pertsonak izan dezakeen minusbalia bada ez du obra baimena ordaindu beharrik izaten".

Iñigo Irazabalek guztiz baieztatzen ditu adierazpen hauek. Iñigoren emaztea, Irune, gaitz batek jota aurkitzen da duela bi urtetik hona eta gaixotasun horrek aulki elektrikoaz baliatzera behartu du, " Nere emaztearen egoera dela eta etxea guztiz moldatu behar izan dugu. Sarreratik hasita, malda bat ipini dugu, ate zabalagoak jarri ditugu, etxe guztia lau laua da inongo barrerarik gabe, komuna ere berezia da...". Obra horiek egite-

rako orduan Iruneren egoera dela eta bizileku berria aurkitu izan behar dute eta Udaletxeak ez du inongo oztoporik jarri, "Guk eskailerarik ez dagoen pisu batean bizitzen hasi berri gara eta legeak horrelako tokietan etxebizitzak egiten uzten ez badu ere, gure egoera dela eta, ez digute inongo arazorik jarri. Horretaz gain, obrak egiterako orduan, obra baimenagatik ordaindu beharrekoa gutxiago izan da".

Ez dira diskriminatuak sentitzen baina badute kexatzeko arrazoirik. "Ez gara diskriminatuak sentitzen. Uste dut jendeak baduela kontzientzia gai honen inguruan. Egia da Elgeta ez dagoela arazo hauei aurre egiteko prestatua. Gauzak falta dira, hala nola, espaloiak, ranpak... Hala ere ez dakit zein puntutaraino kontzientziatu diren, egin berri den kalean, Berraondokuan, ez baitute ezertxo ere egin" diozku Iñigok.

### Laguntza mota ezberdinak

Obra baimena ez ordaintzea izan daitekeen laguntzaz gain, Elgetako Gizarte Zerbitzuak beste laguntza ugari eskaintzen dizkio ezinduari. Minus-



*Elgeta ez dago arazo hauei aurre egiteko prestatua.*

balia aitortzeak adibidez, zerga, ekonomia eta gizarte mailan abantailak izateko aukera ematen du. Ezgaitasun horren aurka borrokatzeko behar diren ibilgailu bereziak erostean ez dute zerga bereziak ordaindu beharrik eta autoa 13'5 ZP(zaldi potentzia) baino gutxiagokoa bada zirkulazio zerga ere dohain izango dute.

Aipaturiko laguntzez gain beste zen-

bait laguntza ere eskaintzen dira, hala nola, etxez etxeko laguntza zerbitzua, tele-alarma, minusbalia fisikoa dutenentzako formazio zentruak, egokitutako garraioa, taxi- bonoa, euro-taxia (gurpil-aulkian dauden minusbalituak garraiatzeko taxi egokitua)...

Ezintasuna dutenen bizi maila hobetzeko, hauek, edo beste edozein laguntza gutxi da.

***Iñigo Irazabal:"Ez gara diskriminatuak sentitzen. Uste dut jendeak baduela kontzientzia gai honen inguruan. Egia da Elgeta ez dagoela arazo hauei aurre egiteko prestatua. Gauzak falta dira, hala nola, espaloiak, ranpak... Hala ere ez dakit ze puntutaraino kontzientziatu diren, egin berri den kalean, Berraondokuan, ez baitute ezertxo ere egin"***

Elgetan ohitura bihurtu da ipuin lehiaketa antolatzea. Guraso elkarteak, Herri eskola, Udaleko kultur saila, Gaztetxea eta Goibekokale aldizkariak elkarlanean haur-errentzako egitarau zabala prestatu dute abendurako.

Aurten, lau epaimahaikide izan dira hiru taldetan banatutako ipuin onena aukeratzeko. Hala bada, ale honetan, Lupe Ibarbia, Mirari Larrañaga, Anselmo Vega eta Iban Arantzabalek osatutako epaimahaiaren iritziz, aipamen berezia merezi du Xabier Irazabalek. 35 ipuinetatik bera aukeratu du epaimahaiak aldizkari honetan argitaratzeko. Talde bakoitzeko hiru ipuin aukeratu dira eta horiekin liburuska bat aterako da Gabonak baino lehen.

## AITITAREN TXIKITAKO GABONAK

Mikel izeneko mutiko batek 10 urte ditu eta Donostian bizi da. Gabon guztietan bere aititaren baserrira joaten da Errege eguna pasatu arte.

Kotxean doala, joan zen urteko gabonekin gogoratu da...

Baserrira heltzean elur-malutak hasita zeuden eta sukaldean sartzean hantxe ikusi nuen aitita aulki batean jarrita beheko suaren ondoan urrak eta intxaurrek apurtzen, intxaurre-saltza egiteko eta bere ondoan jarrita galdetu nion:

-Aitita, gabonetan iluntzean zer egiten zenuten?

-Auzoko neska mutilak elkartu eta etxez-etxe gabon kantak aritzen ginen. -Eta afaltzeko zer jaten zenuten?

-Aza, bixigua beheko suaren txingar gainean eginda, etxeko oilaskoa, konpota eta intxaurre saltza. Eta erateko sagardoa.

-Eta afal ostean zer?

-Ba... Kulapean oso gogor jolastlu, karteruak hiru txakur txiki jarriz mahai gainean. Tarteka gabon kantak abestuz eta nagusiak bertsoak kantatuz.

-Eta aitita, gero goizalderarte egingo zenuten jokoan telebista ikusiz eta...

-Bai zera! Orduan ez zegoen telebistarik eta hama-bitan turroia jan eta ohera joaten ginen.

-Eta hurrengo egunean zer?

-Goizerako, amarnak galdara handi bat txokolatez prestatzen zuen. Txokolatea jan eta denok mezetera joaten ginen. Arratsaldean bazkaldu ondoren, berriz joaten ginen herriko plazara, erromerixara. Baina zortziretan etxean egoten ginen afaltzeko.

-Eta Olentzerok zer ekartzen zizuten?

-Orduan ez zegoen Olentzerorik baina Erregeak piku-pasak eta paineluak edo galtzak.

-Eta jostailurik ez?

-Kebal! Baina aurten erregalu onena jaso dut; Nere bilobak lehengo kontu zaharrak gogoraztea.

.....


Bapatean baserrira heldu da eta berriz ere beheko suaren ondoan jarrita dagoen aititari bi musu handi eman dizkio.

Xabier Irazabal

### ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078



# EAEko 70.000 ume eskubideak aldarrikatzen

Elgetan 0 botu

Elgetako haurrek, Euskal Autonomi Erkidegoko haurren moduan, lehenengo aldiz botua emateko aukera izan dute. Eskubide preziatuena zein den aukeratu dute.

Ekimen hau Euskadiko Unicef elkarteak bultzatu du Umeek ere eskubideak dituztela adierazteko. Nortasun, familia, osasuna, hezkuntza, berdintasuna, babesa, partehartzea, ongizatea, bakea, haurrak aurretik eta elkartasuna dira bermatu behar diren eskubideak.




Hamar urte bete dira aurren haurren eskubide uni-

bertsalak egin zirenetik. 190 estatuk hitzartutako eskubideez ari gara, betetzen ez diren eskubideez, zoritxarrez.

Zortzi eta hamar urte bitarteko haurrei (Elgetan 21 haurrek bozkatu zuten) demokrazia deitzen zaion botu bidezko jokuan entrenatu eta iritzi ezberdinak daudela erakusten zaie.

Bitxiak dira emaitzak eta edozelan ere, ezin konparatzekoak beste herrialde batzuekin.

Kolonbian adibidez, eskubide bozkatuena bizitzeko eskubidea izan da eta Mexikon inguruiroarekiko errespetuarekin batera hezkuntza (Elgetan 0 botu). EAE-n, bakea izan da haurrek gehiago botoa eskuratu duena. Elgetan ere, beharbada momentuak hala eskatzen duela-ko bakea izan da eskubiderik bozkatuena zortzi boturekin. Atzetik datoz familia, jolasa, berdintasuna, babesa, ongizatea eta elkartasuna. Denak ere oso garrantzitsuak.



*Estetika eta Masaia*

MAITE CEBRIAN

Andra Mari Plaza, 1  
Tel: 943 76 82 72 Elgeta

Komentu Kalea, 12 - 1  
Tel: 94 681 63 75 Durango

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

TABERNA

CANVA DE ROKUA

MAITE CEBRIAN

tel: 768273

Goibekakale 40.zk

## David Peñalver: "Goñi da pilotako Ronaldo eta bakean utzi behar zaio"

David Peñalver betidanik ikusi izan dugu herriko frontoian. Beste gazte batzuk beste kirol batzuetara jo duten bitartean, berak tinko eutsi dio pilota jokuari. Jokatzeko jarraitzeko asmoarekin ikusi dugu eta ziur bere onenak emateko dagoela oraindik.

- Noiz hasi zinen pilotan jokatzeko? Eta noiz arte? Zazpi-zortzi urterekin hasi nintzen Elgetako lagunekin eta gaur arte. Lehenago, 12-13 urterekin



*"Gustatuko litzaidake gehiago jokatzeko, baina jendeak afizionatu partida onak ikusi nahi ditu."*

profesionalerako igotzeko ilusioa izaten duzu. Baina behin adin batera helduta, ez dut ikusten maila hori lor dezakedanik, eta gaur egun dudan mailarekin konforme nago.

- Zenbat partida jokatzeko dituzu urtean zehar? Gustora al zaude?


Partida gutxi, 20-25 inguru. Gustatuko litzaidake gehiago jokatzeko, baina jendeak afizionatu partida onak ikusi nahi ditu. Gu, hor, erdimailatik bera geratzen garenok, torneo garrantzitsuenetan ez daukagu lekunik askotan.

- Prestakuntzarik jarraitzen duzue astean zehar?

Ez diot denbora askorik eskaintzen. Forjas inguruan eta presako bidean lasterka ibiltzen naiz. Gero astean zehar, entrenamendu serio bat egiten dugu; saio hauei nire kontu eginiko entrenamenduak gehituz.

- Zein pilotari duzue gustokoen? Titin, Goñiren gainean ze eritzi duzue?

Elgetar bezala argi dago, Aitor Elkoro. Baina bestela betidanik idoloa Retegi izan dut. Titin ere gustoko dut. Goñi pilotako Ronaldo da eta horri bakean utzi behar zaio.



*"Ikusgarria da mutikoak frontoira joan eta animatzen zaituztenean."*

- Ze gauza eman dizkizu pilotak?

Lagun asko irabazi ditut. Onena partida aurreko aldageletako giroa da, bertako adarjotzeak, txisteak... Gero partidaren ez dugu lagunik, baina amaieran denok lagun berriz ere. Euskal Herria ezagutzeko aukera ere ematen dizu pilotak.

- Andaluzian pilotaria zarela esaten duzunean harritu egiten dira?

Gauza kuriosoa da. Han, nik pilota bat hartzen dudanean horma baten aurka jokatzeko, hiru-lau ume etortzen zaizkit ondora jokatzera. Nahiz

eta pilota oso gutxi eman nolabaiteko zaletasuna dagoela nabari da. Pilota harriz egina dagoela ere esaten didate.

- Frontoi bat jendez gainezka edo erdi hutsik? Jendeak motibatzen al zaitu?

Partidaren arabera. Partida on bat egiten baduzu, jende askok ikustea nahi duzu. Partida txarra bada, nahiago duzu jende gutxiagok ikustea.

Elgetan, ikusgarria da mutikoak frontoira joan eta animatzen zaituztenean. Bizitasun bat ematen dizute, eta gustora jokatzen duzu.

# Elgoibarkoak nagusi bolo txapelketako hirugarren ihardunaldian

aElgoibarko San Migel auzoko Imanol eta Xabier Osoro anaiak izan ziren onenak Gabonetako Bolo txapelketako hirugarren tiradan. Hirugarren ihardunaldi honetan Imanol Osorok sei txirlo bota zituen eta Xabierrek, berriz, bost Itxoiño marinarak bezalatsu.

Txapelketako lehen erdia gainditu ondoren Xabier Osoro dugu sailkapenean buru 15 txirlo

botata. Bigarren postuan Gamix Rodriguez eibartarra aurkitzen da 14 txirlorakin eta Baraniagako Jose Plaza hirugarren da 13kin.

kapena nola dagoen ikusita azken tiradararte ez dugu garailearen izenik jakingo.

Sail-



*Gauzak oso parekatuta daude azken bi ihardunaldiei begira*

## Futbito txapelketa urtarrilean hasiko da

Lau talde dira oraingoz izena eman dutenak Udaletxean. Denontzako aski ezagunak diren "Bar el Arco" eta Txapelaz gain, orain arte talde moduan izena eman ez duten talde bi: "La Kokotxa" eta E.H.A (Euskal Herria Askatu). Angiozarkoak ere izango direla uste da. Nesketan berriz, ez du inork izenik eman. Dena den, abenduaren bukaerarte izen emateko aukera dago.

Aurten, azken urteetako "katxondeoa" errepika ez dadin goitik behera gainbegiratuko da arautegia, "Futbol sala"-n Federazioak erabiltzen duen arautegia izango da oinarria.

Arautegi berriaren oinarriak abenduaren 10ean egingo den bilan erabakiko dira.

## Gaizki, gaizki... eta gaizki

Sei partidatan hiru porrot. Posible al da! Normalean denboraldi osoan galdu izan dituzten partida kopurua, lehen fasean galdu dituzte. Zergatik? Zer gertatu da horren emaitza txarrak lortzeko? Beharbada lehen fase honek garrantzi gutxi izateak (bost aurrenekotan sailkatzea nahikoa zen gorengo mailan jarraitzeko eta helburua lortu da) bere eragina izan du. Hala eta guztiz ere onartezina da azken partidatan gertatu zena. Lau taldekide joan ziren jokatzera, lau! Sineztezina ezta?

Orain, bigarren fasea hastear dagoela, espero dezagun gauzak aldatzea, bestela, pasadan urteko "dobletea" errepikatzea amets polit bat besterik ez da izango.

# ZABALA

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



# HERMANOS S.A.

EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA

# Azkenian erderaz



Geure onerako ei dabiz danak, geure deporte nazionala zaiñddu nahixan, kirol nazionalak zaiñddu biharra dauka ta, danak holako zeregiñetan ta eziñ alkarrekin ondo konpondu.

Azkenengo denboraldixan hor ibilli jakuz danok bestiak zelako gaiztuak diran erakusten, eurenak zelako ahalegiñak egitten dittuen ta besteiak dana zela izurratzen daben garbi lagatzen.

Ta horrek danok egiñ ta gero etorri dira azkenian zeozetan bat: Ni putia ta hi putiaua bagaittuk hirugarrenak emongo jok partidua. Ta deporte nazinalan onerako badok ez jotzak hainbeste inporta euskeraz ala erde-

raz dan.

Hola, deporte nazionala salbauko dabe, hizkuntza nazionala apur bat izurratu arren, baiña horrek ez dotza inporta, gaiñera hizkuntza nazionala ohittuta dago hola-kuetara.

Ta juezak be lau. Bi hemengo federaziño-kuak ta bestiak España-kuak, ta danak dake garbi, honetan be, bestiak dakala kulpia. Izan be,

abertzaletasunak abertzaletasun, hemen be badago zeozer errepartidu biharra ta errepartuan danok parte hartu bihar. Ta hemen be alde bixen ahalegiñik haundixena bestiak zelako aldrebesak diran esatia da.

Ta gu pozik, domekan partidua ikusi geinke ta pozik. Abadia ez da hain pozik egongo bezero gutxiau izango dittualako, baiña bestiak pozik. Gaiñera! Hor be

zerua irabazteko bi bide ei daoiz ta igual fango dira bi Angelusa errezatzer, bata euskera naturalian errezzateko asmotan, txalaparta ta guzti, ta bestia, iñor hasarretu ez deiñ, Agur Mariak euskeraz ta Santamariak erderaz egittetkotan. Honen artian, zorixonez, alde batekuak behintzat, gehixau ahalegintzen dira eurak gauzak ondo egitten bestiak zelako aldrebesak diran esaten baiño.

Ta gutako gehixenok beti bixen bittartian, beti bat aukeratu biharrian. Gutxienez bixetako bat ona izaten ahaleginduko balitza, abadien artian moduan, errez eukiko geunke, baiña horretan ibilli biharrian bestia aldrebesa dala ta eurak be aldrebeskerixak egitten gehixau ibiltzen dira ta tartekuok aguan-tau egiñ bihar.

Jabier Arantzeta

**Azkenengo denboraldixan  
hor ibilli jakuz danok  
bestiak zelako gaiztuak  
diran erakusten, eurenak  
zelako ahalegiñak egitten  
dittuen ta besteiak dana  
zela izurratzen daben garbi  
lagatzen.**

**Iragarri zaitez.**

Tel:78.90.85

Faxa: 789043



Jesús Mari Montiel

**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**

Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**

**HAIZEA**

**TABERNA**



giro atsegina  
lagunartean  
egoteko.

Tel: 768256

**IRAMA**


Instalazioak eta  
mantentze lanak

24 orduko zerbitzua  
mensatel: 900282828  
abonatua: 247262  
tel: 789057-768025



## KREMAZ BETETAKO BRAZO GITANOA EDO "IJITO PASTELA"

Sukaldaria: Kontxi Idigoras.  
Panaderokua Taberna



### NOLA PRESTATU:

Lehenengo eta behin, arralultza zuringoak eta gorringoak banatu. Zuringoak irabiatu daukagun azukar erdiarekin "elur puntua" lortu arte.

Ondoren, gorringoak gelditzen zaigun azukarrarekin irabiatu apar bihurtu arte. Honi legamia eta uruna gehitu.

Azkenik, egindako bi nahasketak batu, ondo nahastu eta aurrez gantzututako ontzi luzexka batean zabaldu.

160 gradutako labean 10 minututan eduki.

**Krema nola egin:** esnea egosten ipini.

Bienbitartean, ontzi batean arraultzak azukarrarekin eta maizenarekin irabiatu. Esnea egostear dagoenean, ontzira bota. Ondo sendotu arte eragin.

### OSAGIAK :

#### BIZKOTXOA EGITEKO:

8 arraultza  
8 koilarakada azukarra  
7 koilarakada uruna  
sobre erdi legamia

#### KREMA EGITEKO:

Litro bat esnea  
4 arraultza  
250gr. azukarra  
80gr. maizena



### GOMENDIOA:

-Komenigarria izaten da bizkotxoa labetik ateratakoan zapi humel batekin estaltzea, horrela biribiltzerakoan ez da bizkotxoa apurtzen.

GRUPO  
**IFA** Produkturik onenak,  
prezio onenean

Tel:  
76 80 98.

**ALDI**

Andoni Bolinaga  
METALAK  
FS718

Tel - Fax 76 80 64  
ELGETA

# Liburu-diska liburu eta diska azokan

**Trikitiak eta hitzak bat egin zueneko: apoaren edertasuna**



Oso tasuna duen proiektua da dagoeneko eskaintzen ari diren "apoaren edertasuna". Apo, noski, Elgetan zapoa esateko erabiltzen dugun adieran erabiltzen dute beraiek. Hi-tzetan Koldo Izagirre idazlea eta musikan Joseba Tapia trikitilaria. Biak ere ederrak zentzu askotan, euskal kulturaren leku berezia duten artistak.

Mesprezatu eta gutxietzia dagoen irudi baten bindikazioa da egin dutena. Izenburu probokartzaila da alde horretatik apoaren edertasun eta zirikatze puntu hori nabaria da testu osoan.


Zuzenekoak oso onak, Tapia eta Izagirre diren direnean agertzen dira. Tapiak soinua du lantresna eta hankekin erritmoa markatzen du taula txiki baten laguntzaz. Koldo Izagirre da ipuinaren haria eramaten duena eta

irakurtzen ari dela entzuten egotea luxu bat da, ezin galdu daitekeen luxua. Kantagintzaren tradizioaren inguruan koka daitezkeen testu ironikoak aurkitzen diren diska ateraberi da eta Elgetan zuzenean ere ikusi genuen zelako ipuin ederra den.

"Publiko oso ona izan dugu Elgetan eta kostako da berriro horrelako leku ederrean jotzea". Literatura eta musika uztartuta zuzenekoan, eta diskan marrazkiak ere leku handia du. Artista Soraluze

izan da, Pablo Galarraga.


Gaztelupeko hostak izan da superproduzio honen ekoizlea. Azkenean familia bat da osatzen dutena. Horrek eragirik badu horrelako lan osatua egiterakoan. Durangoko azokan salduena izatea da dagokion lekua.



**Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.**




Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

**TAPEM, S.A.**

**Trokela eta estanzak  
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK**



**KONTXI  
ARRANDEGIA**  
Salbador 5 Tel: 768009

El acuerdo del siglo XXI

# XXI. mendeko AKORDIOA

L'accord du XXI<sup>e</sup> siècle

[www://jalgi.com/baieuskarari](http://jalgi.com/baieuskarari)



# *euskarari*

Abenduaren 26an baduzu konpromezu bat · El 26 de diciembre tienes un compromiso · Le 26 décembre tu as un engagement

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN



KONTSEILUA

Zaborra

ELGETA BERGA

ANTZUO

# Behar den unean



## dagokion gunean

Galartza  
Apotzaga  
Urkulu urtegia  
Bolibar  
Dorleta

Zabor Bilketa:

**Igande, Astearte eta Osteguneta**

**21:00etatik 22:00etara**



Behar baloan

DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA  
COMUNIDAD DEL ALTO DEBA